


# Elikagaiak

## Aurkibidea

Sarrera .....	1
Ezti museoa Ultzamako Eltson.....	1
Arriskuan omen daude erleak .....	2
Esne-kuotak Iparraldean.....	2
Kristoren esnea.....	3
Dieta .....	4
Ebazpenak.....	5
Ezti museoa Ultzamako Eltson .....	5
Arriskuan omen daude erleak .....	6
Esne-kuotak Iparraldean .....	6
Kristoren esnea .....	6
Dieta .....	6

## Ezti museoa Ultzamako Eltson

Argia, 2009-11-08 

→ Ikusi diaporama eta lotu hitzak euren definizioekin.



- A. Erlauntzeko argizaria, ezti, eta abarrak ustiatzearren erleak haztean eta zaintzean datzan jakintza.
- B. Erleak haziz bizibidea ateratzen duen pertsona.
- C. Erleak hazi, eta ezti jaso eta lantzen den lantegia.
- D. Erlekumea hartzeko prestatzen den babes, erle-ontzia.
- E. Erlauntza.
- F. Argizaria.
- G. Kandela luzea eta mehea, gehienetan argizaioletan bildurik, hilobietan erretzen dena; argizaiola bera.

1. Bildumen	5. Eultze
2. Erlauntza	6. Ezko
3. Erlezain	7. Eztiola
4. Erlezaintza	8. Kofoin

→ Ikus ezazue berriz diaporama hori eta aukeratu erantzun egokia.

**1- Ezkurdi etxea Eltson dago, Nafarroako Ultzaman, eta \_\_\_\_\_ .**

- a) Ixabel Telleria bertako albaitaria da
- b) bertan bizi da Ixabel Telleria
- c) bizi ez, baina bertan lan egiten du

**2- Bere laborategian \_\_\_\_\_ .**

## Sarrera

Ikasgai honetan, janaria eta jateko ohiturei buruz jardungo dugu.

Eztiari eta esnari buruzko bideo eta diaporama bana ikusiko ditugu etahaiekin lotutako ariketa batzuk egingo ditugu.

Gainera, jateko ohitura bitxiren bat ere ezagutuko dugu, eta beste zenbait ariketa eta etxeko lan egingo ditugu horren gainean.

- a) bereak ez beste inoren eztiak analizatzen ditu
- b) bere ezti eta beste erlezainena ere analizatzen ditu
- c) eztiak aparte, erlezainen beste hainbat produktu analizatzen ditu

**3- Erleen munduko material ugari bildu du han oharkabean, museo bat osatzeraino; \_\_\_\_\_ .**

- a) lanbide horretan oso gazterik hasi zen
- b) etxez etxe ezti partitzen zebilenean otu zitzaion ideia
- c) azoka batetik bestera ezti saltzen zebilenean hasi zen

**4 Ezkurdiko eskaileretan antigoleko erretratuak daude ikusgai, \_\_\_\_\_ .**

- a) berak eginikoak edo ezagunek emandakoak
- b) asko ezagunek emandakoak dira
- c) liburuetatik aterata edo ezagunek utzita dauzka han

**5- Etxeko sabaian \_\_\_\_\_ .**

- a) balio handiko tresna zaharren biltegia osatu du
- b) balio etnografiko handia duten tresna zaharrak bildu ditu
- c) zumitzez eta buztinez egindako altxorra gorde du

**6- Erlategiak era askotakoak izan dira: \_\_\_\_\_ .**

- a) material desberdinekin eginak, eta makina bat izenez izendatuak
- b) material desberdinak erabili dira hauek egiteko, baina izena beti bat izan da
- c) beti forma berdina bazuten ere, material desberdinez egin izan dira

**7- Ezkoa ere aprobe txatu izan du gizakiak aspalditik. Hiru aukeretatik zein ez du aipatu?**

- a) Kandelak egiteko eta hildakoen oroimenez sua pizteko.
- b) Botikak egiteko.
- c) Bildumak egiteko.

## Arriskuan omen daude erleak


**Zuberoan egin berri duten kongresuan erleak desagertzeko arrazoiak aztertu dituzte. Erleen Institutuaren arabera, %5etik %32ra igo da erleen hilkortasun-tasa.**



→ **Bideo bat ikusiko duzu. Esan esaldi hauek EGIA edo GEZURRA diren bideoan entzundakoaren arabera.**

→

## Arriskuan omen daude erleak

*Habe-Ikasbil. EITBtik hartua, 2012-03-22, *

- 1- Erleen hilkortasun-tasak gora egin du negu honetan.
- 2- Berriki, kongresu bat egin omen dute gaiaren inguruan, Zuberoan.
- 3- Erleak desagertzeko aipatzen den lehen kausa *cruiser* izeneko landare erailea da.
- 4- Genetikoki aldatutako haziak hilgarriak dira erleentzat.
- 5- Asiako erlastarrek Erleak hiltzen dituzte, lurraldean aurrera egin ahala.
- 6- Erleek ezti, ezkoa eta beste elikagai asko ematen dizkigute.
- 7- Erlerik ez balego, mundua oso desberdina izango litzateke.
- 8- Erleak laborariak bezalakoak dira: lan eta lan dihardute gure onerako.

## Esne-kuotak Iparraldean

### Etorkizun beltza esnezaleentzat.

*Habe-Ikasbil. Euskadi irratitik hartua, 2015-04-15.*



→ **Audiodan hitz hauek entzungo dituzu. Lot itzazu hitzak sinonimoekin.**

1. BAZKA	A. DIGUTE
2. APALDU	B. BASERRI
3. DAUKUTE	C. BEHERA EGIN
4. LABORARIAK	D. ERRAZ
5. AISA	E. GANADU-JAN

6. ETXALDE	F. HEIN BEREAN
7. ARABERAN	G. NEKAZARIAK

→ Europak esne-kuotaren sistema bertan behera uzteko asmoa du, eta horrek zer ondorio izango dituen gure baserritarren artean jakiteko, hemen duzu Iparraldeko ELB laborari-sindikatu Andde Duboisen iritzia. Entzun ondoren, egin ezazu aukera zuzena.

### 1-Nola ikusten du panorama A.D.-k esne-kuoten sistema amaitu ondoren?

- Orain 2009an bezala daudela uste du: gaizki.
- 2009ko krisian baino okerrago.
- 2009an esnearen prezioak behera egin zuen; gero, kuoten desagertzearena etorri da: panorama iluna benetan!

### 2- Zein da laborarien beldurra?

- Esnearen produkzioak gora egingo duela eta prezioak behera.
- Asiara salduko dela hemengo esnea.
- Asiatik-eta ekarriko digutela esnea; beraz, prezioek behera egingo dutela.

### 3-Nondik etorriko zaie makurra Ipar Euskal Herriko laborariei?

- Ipar EHko etxaldeak txikienak dira munduan, eta ezin dute produkzioa emendatu.
- Kanpoko bazkarekin ari direnek ezin dute Frantzia iparrekoekin lehiatu.
- Frantziako iparraldeko eskualdeetan produkzioa emenda dezakete, besteak beste, haien etxaldeak handiagoak direlako.

### 4- Murriztu al ditzakete euskal baserritarrek produkzio- kostuak?

- Bakarrik kanpoko bazkarekin arituz gero.
- Ez dago argi; agian, kanpoko bazkarekin arituz gero...
- Ezinezkoa dirudi.

## Kristoren esnea

→ Irakur ezazu Jakoba Errekondoren Argiako artikulua. Ondoren egin itzazu proposatzen diren ariketak.



Foto Jezy 2018

### Kristoren esnea

**Jakoba Errekondo.** Argia, 2014-09-21

Latexa ez da izerdia. Landareek, gehienetan zuhaitzek, jariatzen dituzte bata zein bestea. Ez omen dira, ordea, gauza bera, ezta gutxiagorik ere. Izerdiak bi dira: gordina eta landua. Sustraietatik gora doan izerdi gordina lurretik hartutako urez eta mineralez osatutakoa da. Izerdi landua hostoetan sortzen da, urari eta mineralei airetik hartutako karbonoa erantsita. Gordina lantzeko energia eguzkiaren argia da. Lan horri “fotosintesi” deitzen zaio; hau da, argiaren bidez sortzea.

Latexa ez dago landarearen elikadurarekin lotua. Itxuragatik esnea badirudi ere, haren izena ez dator “esne” esan nahi duen *lac*, *lactis* latinotik, “likore” edo “ardo kondar” esan nahi duen grekoko *λάταξ*-tik baizik. Batez ere landarearen babeserako da. Izerdiak eta latexak bakoitzak bere bide-sarea du landarean. Latexa dabilen hodietakoren bat puskatuz gero, isuri egingo da. Aireak ukitutakoan zihatu, eta zauria itxi egingo du, ez da izerdiz hustuko eta gaitzei aurre egingo die. Era bateko edo besteko pozoia izan ohi du latexak.

Landarearen hodietako haustura edo urratua animalia belarjalaren baten hozkak egin badu, ederki damutuko zaio: sutan izango ditu, puska baterako, ezpain eta oi. Matraila mugitu ezinik utz dezake zenbaiten edenak.

Zaurituz gero, esnea edo latexa isurtzen duten landare asko etxeko ditugu: uraza (*Lactuca sativa*), pikondoa (*Ficus carica*), txikoria belarra (*Taraxacum officinale*), zaran belarra (*Chelidonium majus*), tartikua (*Euphorbia lathyris*), kristoren arantza (*Euphorbia malii*), pazko lorea (*Euphorbia pulcherrima*), marugatzea (*Morus alba*), marugatze beltza (*Morus nigra*), kautxu landarea (*Ficus elastica*) eta abar. Haien latexa mina eta garratza da eta ukitzen duena (azala, begia...) minberatu edota erre dezake. Adibidez, enara belarra ere deitzen zaion zaran belarraren latex gorria garatxoak erretzeko

erabiltzen da. Esan ohi da ukitzen dituen zelula guztiak hil egiten dituela. Garatxoak maiz-maiz igurtzita, desagerrarazi egiten ditu. Neureak behintzat arin asko eraman zituen.

Bada latex jangarria ematen duenik ere; esnearen arbola (*Brosimum utile*), adibidez. *Utile* horrek argi asko dio: esne jangarri gozoa jariatzen du. *Brosimum galactodendron* eta *Galactodendron utile* ere deitu izan zaio, hau da, "esnearen arbola". Venezuelan, *palo de vaca* deitzen dute. Eta, harrapazank, esnea eta hostoak galaktogenikoak dira; hau da, hartuz gero, bularraren emana areagotzen dute.

→ Aurkitu erdarazko esapide hauen ordaina testuan.

→

Ni mucho menos

Bien le pesará

Bien rápido que me quitó las verrugas

Incrementa el flujo de leche.

Sin poder mover la mandíbula.

Chúpate esa!

→ Hiztegia: lotu hitza bere definizioarekin.

1. izerdia	a) Pozoia
2. zihatu	b) Koipeaz eta kidekoetz mintzatuz, solidifikatu.
3. izerdiz hustu	c) Musu
4. ezpain	d) Mindu
5. oi	e) Landareek sustraien bidez lurretik ateratzen duten isurkari hazkurritsua, zurtoinean eta adarabarretan zehar gorantz eta beherantz dabilena.
6. eden	

7. minberatu	f) Larruazalean agertzen den pikorta gogorra.
8. garatxo	g) Izerdi guztia galdu edo kendu. h) Haginak inguratzen eta finkatzen dituen haragi sendo gorrixka.

## Dieta

→ Aukeratu hitz egokia hutsune bakoitzerako.

### Dieta

**Idurre Eskisabel. Berria, 2014-01-19**

Elik hirugarren eguna du gaurkoa kuia- eta apio-purea besterik ez <sup>(1)</sup> \_\_\_\_\_ jaten; beste zazpi eta erabat garbi izango du gorputza. Hala espero du, hala behar du, hala agindu dio naturopatak. Eli zikin sentitzen baita aspaldian, eta dagoeneko ez baitaki zer egin.

Jertse beltz bat estreinatu zuen egunean hasi zen bere zikinkeriaz jabetzen, di-da batean sorbalda biak <sup>(2)</sup> \_\_\_\_\_ -z zurituta baitzeuzkan. Ilea koipez gainezka zuela konturatu zen handik pare bat egunera. Aurpegia eta bizkarra <sup>(3)</sup> \_\_\_\_\_ -rez betetzea izan zen hurrena; eskuetan <sup>(4)</sup> \_\_\_\_\_ -ak ateratzea gero, eta, lasterrera, ekzemak ukondoetan. Baina txarrena izan zen sumatzea arnasa <sup>(5)</sup> \_\_\_\_\_ bihurtu zitzaioela, eta izerdi <sup>(6)</sup> \_\_\_\_\_ bat zeukala larruazal guztian itsatsita egun eta gau. Zikin sentitzen da, bere buruari nazka emateraino.

Elik garbitze-neurri guztiak gairitu ditu: xaboi, desodorante, <sup>(7)</sup> \_\_\_\_\_ eta <sup>(8)</sup> \_\_\_\_\_ garestienak probatu, eta egunean zazpi aldiz dutxatzera iritsi da. Guztia alferrik denez, zikina barrutik datorkiola ondorioztatu, eta lagun batek aholkatutako naturopatarekin hasi da. <sup>(9)</sup> \_\_\_\_\_ eta apioaren dieta garbitzailea du, orain, itxaropen.

Tarteka zalantzatxo batek <sup>(10)</sup> \_\_\_\_\_ -tzen du, ordea: atxikita daraman zikinkeriak ba ote duen zerikusirik bankuan lanpostu hobea eman ziotenetik sinatzen duen etxe desjabetze agindu mordoarekin.

Ukendu	Atsitu
Garatxo	Zaldar
Artega	Kirats
Duela	Zolda
Kuia	Lurrin

biribilak eta oso handiak, hori-laranja kolorekoak ematen dituen; landare horren fruitua ( <i>Cucurbita pepo</i> ).	H. Kirats
7- iz. Usain gozoa; usain gozoa emateko egiten den gaia. Ik. urrin.	I. Zolda
8- iz. Larruazalean ezartzen den gai edo ore koipetsua.	J. Lurrin
9- iz. Larruazal azpiko zelulak zoltzean sortzen den pikorta.	
10- iz. Gauzei atxikitzen zaien ziktasuna.	

→ **Aukeratu hitz egokia definizio bakoitzarentzat.**

1- iz. Ginbaildunen familiako baratze-landarea, zurtoin urtsua eta hosto zatituak dituena, jateko ona ( <i>Apium graveolens</i> ).	A. Ukendu
2- adb. Urduri	B. Garatxo
3- adj. Batez ere Bizk. Usain guztiz txarrekoa. Ik. kirastu.	C. Artega
4- iz. Azalean, bereziki eskuetan, oinetan eta aurpegian agertzen den pikorta gogorra.	D. Apio
5- iz. Usain guztiz txarra eta jasangaitza.	E. Kuia
6- iz. Landare herrestaria, hosto-handi eta lore-horia, haziz beteriko fruitu	F. Atsitu
	G. Zaldar

## Ebazpenak

### Ezti museoa Ultzamako Eltson

→ **Ikusi diaporama eta lotu hitzak euren definizioarekin.**

- A. Erlauntzeko argizaria, ezti, eta abarrak ustiatzearen, erleak haztean eta zaintzean datzan jakintza. Erlezaintza
- B. Erleak haziz bizibidea ateratzen duen pertsona. Erlezain
- C. Erleak hazi eta ezti jaso eta lantzen den lantegia. Eztiola
- D. Erlekumea hartzeko prestatzen den babes, erle-ontzia. Erlauntza
- E. Erlauntza. Kofoin Eultze
- F. Argizaria. Ezko
- G. Kandela luzea eta mehea, gehienetan argizaiolan bildurik, hilobietan erretzen dena; argizaiola bera. Bildumen

**Ikus ezazue berriz diaporama hori eta aukeratu erantzun egokia.**

**B/B/C/C/B/A/C**

## Arriskuan omen daude erleak

→ Bideo bat ikusiko duzu. Esan esaldi hauek EGIA edo GEZURRA diren bideoan entzundakoaren arabera.

1- GEZURRA

2- EGIA

3- GEZURRA

4- EGIA

5- EGIA

6- GEZURRA

7- EGIA

8- GEZURRA

## Esne-kuotak Iparraldean

→ Audioan hitz hauek entzungo dituzu. Lot itzazu hitzak sinonimoekin.

BAZKA	GANADU-JAN
APALDU	BEHERA EGIN
AIPATZEN	AIPATZEN
DAUKUTE	DIGUTE
LABORARIAK	NEKAZARIA
AISA	ERRAZ
ETXALDE	BASERRI
ARABERAN	HEIN BEREAN

→ Europak esne-kuotaren sistema bertan behera uzteko asmoa du, eta horrek zer ondorio izango dituen gure baserritarren artean jakiteko, hemen duzu Iparraldeko ELB laborari-sindikatu Andde Duboisen iritzia. Entzun ondoren, egin ezazu aukera zuzena.

C / A / C / B

## Kristoren esnea

→ Irakur ezazu Jakoba Errekondoren *Argiako* artikulua. Ondoren egin itzazu proposatzen diren ariketak.

→ Aurkitu erdarazko esapide hauen ordaina testuan.

Ni mucho menos: **ezta gutxiagorik ere**

Bien le pesará: **ederki damutuko zaio**

Bien rapido que me quitó las verrugas: **neureak behintzat arin asko eraman zituen.**

Incrementa el flujo de leche: **bularraren emana areagotzen dute.**

Sin poder mover la mandibula: **matraila mugitu ezinik**

Chupate esa!: **harrapazank!**

→ Hiztegia: lotu hitza bere definizioarekin.

1-e/ 2-b /3-g/ 4-c/ 5-h/ 6-a/ 7-d/ 8-f

## Dieta

→ Aukeratu hitz egokia hutsune bakoitzerako.

<u>1 duela</u>	<u>2 zolda</u>	<u>3 zaldar</u>	<u>4 garatxo</u>	<u>5 kirats</u>
<u>6 atsitu</u>	<u>7 lurrin</u>	<u>8 ukendu</u>	<u>9 kuia</u>	<u>10 artega</u>

→ Aukeratu hitz egokia definizio bakoitzarentzat.

1-H /2- D / 3- B /4- A / 5- F / 6- C 7- I / 8- E / 9- J / 10- G